

ITXAROPEN-ITZA

Errukia bai. Opari ez. (Matai 9,13).

Gure Erosleak itz oriek noiz esan zizkigun gogoratzen?

Matai deunak deiturik, bazkaldar joan zanean eta maiean zegolarik, gizatxar eta nolabaitekoak antxe zirala, guztientzat egokia zirudiola, orra irakaspenik ederrena. Beifiolako zerga-biltzalleak bizitza berria asi nai. Adiskide eta ezagunei agur egin nai.

Parisaitar eta zintzo-usteko asko begi-gorri zebiltzan, eta oiek Iesu'ren ikasle-iarraileei iardetsi:

—«Zuen nagusi eta lendakari orrek zer maikide aukeratzten dizkizue? Gure artean gizatxar eta okeregillerik besterik ez al degu?».

Entzun gabe ere, zenbaiten maxio-tzak Iesu'k ongi zekizkian. Au esan zien:

—«Zoazte eta onako itz auen esan-naia ikasi! Errukior naiz, eta ez Qpari-zale».

Lendik, Osea igarleak orixe ber-bera erakutsi zigun: Sei-

garren ataleko seigarren txatalean. Orrela Iesu'k aurrekoen esanak aintzakotzat zituela adirazten digu. Aari eta zekorrek eskeintzea bano, Jaungoikoa zer degun ikasi eta iakitea bearrago eta onuratsuago.

Eguneroko kistar-bizitzan geron-geronik ezer baldin ba'degu, berri eta lenengo eta agindu guztien erpinean auxe degu: urko laguna erruki izan. Erruki zinak egizko maitasuna sortzen eta ekartzen. Euskalerrian errukiaren ederra ez dakinik ez degu. Erruki dezunari ezer ukatuko al diozu? Maite izatea bafio erruki izatea sakonagoa degu. Askozaz ere emankorra-goa; txera eztiz bigunagoa; biotzeko iarioz amultsuagoa. Erruki deznak azkar igarriko. Espanez eta itzez maitasuna erakutsi nairik ibiltzen gera. Errukia egintzaz eta ukarrez bakarrik adirazi genezake. Xenpelar'ek bezelaxe. Ona: «*Joka asten naiz bona laister urrikaldu*». (Betroiaren bertsoak amaikagarren aapaldian).

Maizago errukior agertzen diranak auetxek'edo ditugu: gurasoak; irakasleak; osalariak eta apaizak.

Amak bere aurragandik zerbait nai du: agian uste ez duela: aurrak maitasunez esango diolako. Bestela, berriz, ama minduak azkar esango: —«Oraingo umeak esker txarra besterik ez dute». Beraz, utsean ariko zaigunik gutxi izango.

Irakasleak, iakintza-eske datozkion aiek iiongo gazte aurratuen atera naiko dizkizu: nor-geiagokako indarkeri guztietara gazte ikasleak eraman naiko ditu. Lenengo mallara iristen ez ba'zaizkio... orduntxe negarrak eta ume ergelekin ibiltzeak onik ez diola ekartzen... eta abar. Izparringietan ere beste norbaiten aipamena irakurri dizu. Inartxiz. Ezin esan alako mifiez.

Osalaritzan asi aurretik, urrutiko Ikastetxe Nagusietan ibili. Orixe! Ibili eta iiozentzat errukirik izaten ez ikasi. Ondoren, ikasketak bukatzean Osategi aundietan asi. Datorkiena zenbait eta makalago, orduan eta naiago. Beintzat ua onez ateratzen ba'du... izen ederra irabaziko duela. Bitartean, alako osalariak ez daki etxe artan laguntzalle dituan andere-noak Ian geiegi izaten dutela, eta aspertzen diralarik ifior-ganako erruki gabe gertatzen dirala.

Apaizetan, berriz?

Guraso, eta irakasle, eta osagillien artean bezela, apaizetan gizon onak izaten. Batez ere, geienetan apaizak gurbillak ditugulako. Ume gifiala auxe ere entzun izaten nuen: «Auxe umiaren sena...». Formosa'n nintzala, ama batek oso aur argia eta esaten zidan: «Onek? Guztia daki»... alegia seneko aurra zala, oso gurbilla. Itun Zaarrean delako senak bizi izateko oarmena pizten digu. Noski bizi izatea ertilan bikana degula. Sendunari irritsek ez diote gainka egingo. Seneko gizona oso bere buruaren jabe degu. Apaiz gurbilla irritsez eta inartsiz ez zaigu sutuko: baizik ete arek bere otzean guztia ikusiko.

Labur ari nadin, apaiz gurbillak ikasiaren ikasiz bizi izatea zer dan daki... noski, berbera egoki bizidalako. Olako gizona guztirako zabal degu: leenagokoak idatziz utzi izan digutenera bakarrik ez; bai iritzi berrietara ere, orobat aldateten aurpegi dizdiratsura, auziak ete zer-eginak erabaki eta zuzentzeko era askotara. Senaren argitan bizi danari txaloka iarraituz, geiegikeririk bein ere ez nuke ez esan ez idatziko.

Apaiz onak, Elizako Guraso Ieronimo deunarena ez bertan beera utziko. Auxe: Omnes puellas... aut aequaliter ignora, aut aequaliter dilige. Noski: neskato guztiak bata bezela besteak aztu; edo'ta bata afiaxe bestea maite.

* * *

Idazteuneko Eresietatik ikasi degunez Jaungoikoari, erruki gaitzala maiz eskatzen diogu: «Erruki zakizkit eta nere otoitza entzun». (Eresi 4,2).

Beste au ere Eresietakoa degu: «Jauna biotz-biguin eta errukiorra da; asarrerako geldia ta errukiz aberatsa». (Eresi 144,8).

Oraingo berrogeitamaikagarren eresia Kistartasunean beti garbai-eragingarri eta barkapen-eskekoa izan degu. Ona irugarren txatala: Erruki zakidaz, ene Jainko, zure ontasunagitik: garbitu nere errua zure erruki aundiagaitik. Jesukristorentzat lenen-lenengo errukitsua Jaungoiko Aita. Oraintsu, Ion Paul

bigarren Doipuruak bere Artzai-Eskutizari izena eman dio: ERRUKIZ ABERATSA. Guztiok maite gaitun Aita Jaungoikoa zintzoentzat eta zintzo ez diranentzat euria egiten diguna. Ain zuzen, Jesukristo'k guztiak maite zituelako, ezeren beldur gabe eta aurre-irizirik ez zigula ogengilleak eta gizatzarrak lagun zizkigun. Orrelaxe, Jaungoikoa zer degun erakutsi zigun.

Jaungoikoa ez degu opari zale.

Karmel mendilepoan Elias igarleak egin zuna gogoratuz, norbaitek gezurretan gabiltzala esango liguke. (Ikus: Erregeen lenengo idaztian 18 20-garretetik aurrera) Elias'ek idi osoa artxabalen ganean ipifii zuen, azpitik egurra erruz: eta Jaungoikoa ziiia zala adirazteko, goitik sua eraitxiz guztia kiskali. Oraingo ontan, ordea, Elias'en eskeintza bikoitza zala esan genezake: opari eta eskari.

Kistar-sinismenaren giroan errukia eta maitasuna nagusi.

Beraz, zurekin bizi dan adiskidea maite ez ba'dezu, zure Iaun-gorespena utsa ana ez: zure otoitzak Aren belarrietan ots aul eta kaxkarra aterako. Erriko elizara bazoaz ere, beldur izateko degu alperrik ez ote-zeran ibiltzen: Ari eskeintzen diozun opari-emaiza geza bano gezagoa eta txasta txarreko mikatza... Guzti oriek biotzetik irteten al zaizkizu?

Zurekin bizi diran guztiak txeraz artzen al dituzu? Guztientzat alakoxe maitasun bero eta emankorrak biotzaren aloz izkutuenetan bor-bor irakitzen al dizu?

Onako itz auek oso gogoan izatekoak ditugu: «Zure oparia maigafiean eskeingari dezunean, zure anaia mindu izan dezula gogoratzean, utzi antxe bertan zure oparia eta anaiatz onekoak egitera zoazi... gero, itzultzean zure biotza zure Jaungoikoari zabal ezaiozu...». (Matai 5 23 eta urrengoak),

Gure egunetan beratn, Albania'tar lekaike TERESA'k ontan asko erakusten digu. Ludi'ko iri gizatsuetan bizi diran errukarriei egizko kistar-maitasunez, dezaken guztia eskeintzen die. Delako iri orietan loia erruz... bizilekuetan eta atari zabalean orobat: garbiketarako ur gutxi eta kraka nazkatze-ko ana.

Elizako aldareetan ditugun deunek urkoarentzat beti eraspen aundia izan digute. Tours'ko Martin deunak. Camilo Lelis gartsuak: bi oriek lerro auetara ekarriz beste inor ez det gutxigotzat ematen.

Etxeberria'tarr P.s.j.
Ilo-Ilo: uztailak 15, 1981

flakurn zazute... «KARMEI»
Brakum-azi zazute «KARIMIEL»

«GURE ALDIZKARIA»

«ZURE ERREBISTA»

«KARIVIEL»

Urteko eskupekca: 300 pta.

Zuzenbidea: Karmen, 2

EI B AR-GIPUZKOA